



LIBURUA

Txinpartak



111AKADEMIAEUS

UDABERRIA SUTAN JOXEMARI ITURRALDE

PAMIELA, 2021

IGOR ESTANKONA

Onartu behar dut haikuekin gertatu ohi zaidala lehenbizian amodio handi bat, eta gerogarrenean nekatu egiten nautela. Joxemari Iturralderen liburua hartu nuenean udaberria zen, orain udan ari naiz idazten.

Udaberria sutan. la ehun haiku (Pamiela, 2021) irakurketa atsegina da. Gure letratan oso erabilia izan den haikuaren teknikarekin egindako zertzelada hauetan kausi ditzakegu gereziak, gauak, putzuak. Edo poema aski filosofikoak, pilulen antzera irensten direnak: “Denbora izanen/ da errautsa haizeak/ eramateko”.

Hainbeste iragarki labur, ideia sinplista eta efektu bereziren artean zaila da bereiztea haiku bat gaur egun. Haikuz beterik daude bazterrak, batzuk diote hartzeko zita txertorako, beste batzuk diote jan hemengo prozesatuak, edo

etorri gure telefono konpainiara. *Jimu* Iturralderen haikuek, oster, aho zapore luzea uzten dute, eta irakurleoi dioskue: “Urperatuko/ den itsasontzia da/ ohea gauetz”.

Shushiaren antzera, hau honen barruan jarrita eta hau honekin konbinatuta, Iturraldek lortu du ez aspertzea, batez ere bera, haiku liburuei maiz igartzen zaien mekanismoa ezkutuan gordez eta irakurleari gozamina soilik utziz. Esaten dena ia ehun ahapalditan badator, iradokitzen direnak dira hemen itsas hondar infinituak, gure baitan hitzek eta hitzen faltak sortzen duten sonarraren irudi leuna: “Egun bat da bi/ zurekin baldin banaiz/ bi bat zu gabe”. Eta ez dakizu zehatz denbora laburtu egiten den edo luzatu, haikuaren kondena baita, eta gozotasuna, pasadizoa dela infinitua,

behin-behinekotasuna betiko egia. Haiku epidermiko ere egin daiteke, noski, baina zeinen ederra den *Jimuren* erara egin ez gero, edo Magdalenaren erara, edo Igerabideren erara. Azken aldian gure literaturak gaurkorik eta biharrik gabeko pieza txiki solte ederrak eman dizkigu, subkontzientearen gozagarri. Haikua tri-bializatu egin daiteke, edo idatz daiteke: “Txalupatxo bat/ Mutrikuko kaian/ zure zain dago”. Muga-mugan dago gatzbakotik, eta oster, liburu honetan dir-dir egiten du pieza honek, beste hainbat piezak legez. *Udaberria sutan*, finean, abusu bihurtu orduko da bukatzen, eta askotan da berriro hasten eta bukatzen, haiku beste aukera baitaizka irudimenarentzat. *Udaberria sutan* da horixe, udaberria sutan, suzko euri bat zerua zeharkatzen, txatarra dariola. ●